



2022. URTEKO MEMORIA

AURKIBIDEA

2022 ZENBAKITAN	2
URTE GAZI-GOZOA	3
JAVIER GALPARSOROREKIN ELKARRIZKETA, ZEHAR ERREFUXIATUEKIN ELKARTEKO PRESIDENTEA	5
2022EKO JARDUERA NAGUSIAK	7
ESKU-HARTZEA	8
Harrera/Goihabe/Unitate mugikorra/Mentoretza.....	10
Hemen.....	11
Harrera-zentroak.....	12
Arlo juridikoa.....	13
INTZIDENTZIA	15
Deserrotuak.....	15
Bizikidetza.....	16
Defendatzaileak.....	21
Parte-hartzea.....	23
Komunikazioa.....	25
Marketina.....	28
KONTUAK ARGI	31
SAREAN EGITEN DUGU LAN	32
ERAKUNDE ALIATUAK	33



2022 ZENBAKITAN

- 16** bikote gizarte-mentoretzako programan parte hartzen
- 89** bizikidetza-nukleo Gipuzkoako unitate mugikorrean artatuak
- 12.500** jarraitzaile sare sozialetan
- 200** inpaktu erregistratuta komunikabideetan
- 608** hasierako harrera-elkarrizketa
- 1.253** pertsona leihatila bakarrean artatuak
- 216** pertsona Goihabe programarekin lagunduak
- 47** pertsona Harrera programan jasoak
- 310** gazte Hemen programan artatuak
- 291** pertsona Azken Sarea Indartzen programaren onuradun
- 150** pertsona IAGORAtorioan parte hartzen
- 1.048** pertsona, 38 kultur-nortasun desberdinetakoak, Bizilagunak proiektuan parte hartzen
- 1** Kolonbiako giza eskubideen defendatzaile bat eta bere semea Aldi Baterako Babeserako Euskal Programaren babespean
- 425** pertsona Larraña Etxean (Oñati) eta Zuloaga Txikin (Tolosan) jasoak
- 400** Ukrainatik etorritako 400 pertsona hainbat ekimeni esker artatuak (Eroskiren Elkartasun Zentimoak, Kutxa Fundazioa...)
- 900** pertsona Erefuxiatuen Nazioarteko Eguneko mobilizazioan
- 60** erakunde #Deserrotuak manifestuari atxikiak

2022: URTE GAZI-GOZOA

✔ Pandemiaren ondoren mugak ireki zituztenetik, asilo-eskaerak ugaritu ziren, bai estatu mailan eta baita Euskadin ere. 2022an Euskal Autonomia Erkidegoan 4.086 eskabide aurkeztu ziren.

✔ Babesa aitortzeko tasa ere nabarmen igo zen. Nazioarteko babes eskari guztien artean % 16,5 onartuak izan ziren (Errefuxiatuen Estatutua eta Babes Subsidiarioarena). Iturria: Barne Arazoetako Ministerioa.

✔ Historian lehen aldiz Europako 2001/55 Zuzentaraua aktibatu zen, gerratik ihesi zihoazen ukrainarrak aldi baterako babesteko. Modu horretan, Euskadin 4.046 pertsona jaso ziren.

✔ Atzerritarren Legearen Erregelamenduaren erreforma indarrean sartu zen, aurrerapen batzuekin, besteak beste, Europar Batasunetik kanpoko ikasle atzerritarrentzat lan-aukera; prestakuntzaren araberako errotze bidezko erregularizazioa; bizileku- eta lan-baimenen berritzeek lau urteko indarraldia izatea; Espainian hiru urte daramaten eta lan-kontratua lortzen duten pertsonak familiak berrelkartzeko baldintzak malgutzea; eta abar.



@Zehar-Errefuxiatuekin/Maite Martínez



- ❌ Euskadin egindako eskaerak pandemia aurreko mailaren azpitik egon ziren (2019an 4.826 eskaera jaso ziren). Oraindik ere, beren herrialdeetatik ihes egiten dutenek bide oso arriskutsuak hartu behar dituzte eta bizia galtzen dute bidean, ez baitago legezko bide segururik. Mediterraneotik iristeko bideak, oro har, planetako arriskutsuenak izan ziren berriz ere, 2.965 heriotza eta desagerpen gertatu baitziren, hau da, mundu osoan erregistratutako migrazio-ibilbideetan hildako pertsona migratzaile guztien % 40 (6.878).
- ❌ Handitu bazen ere, Espainiako estatuan aitorten tasa oso txikia izan zen Europako batez bestekoarekin alderatuta (% 38).
- ❌ Ukrainako gerraren kasuan, argi ikusi da borondate politikoa dagoenean egoeraren mailako erantzuna eman daitekeela. Horren aurretik, ez zen inoiz aktibatuta 2001/55 Europako Zuzentarauak araututako babes-mekanismoa, Afganistango eta Siriako gatazketan ezta ere ez.
- ❌ Atzerritarrei buruzko legearen arautegia aldatzea beharrezkoa da, baina muga handiak ditu. Premiazkoa da migrazio-politikek fokua eskubideen bermean jartzea, eta ez lan-merkatuaren premietan.

JAVIER GALPARSOROREKIN ELKARRIZKETA, ZEHAR ERREFUXIATUEKIN ELKARTEKO PRESIDENTEA

“Mugiarazten gaituena eta mugitzen jarraituko gaituena babesa aitortzeko borroka da, pertsonen jatorria edozein dela ere”

Dagoeneko 26 urte igaro dira Zehar-Errefuxiatuekin sortu zenutenetik. Zuen misioa eta ikuspegia azalduko zenieke oraindik ere erakundea ezagutzen ez dutenei?

Beti mugiarazi gaituena eta oraindik ere mugiarazten gaituena da oinarrizko eskubideen etengabeko jazarpen eta urraketa sistematikoetatik ihesi Euskadira iristen direnei nazioarteko babesa bermatzeko borroka. Errefuxiatuen, kalteberatasun-egoeran dauden migratzaileen eta aberrigabeen eskubideen bermea eta garapen osoa defendatzen eta sustatzen ditugu. Gizarte jasangarriago, bidezkoago eta diskriminaziorik gabeko baten ikuspegiarekin egiten dugu, aukera-berdintasunean eta identitate indibidual eta kolektiboaren errespetuan oinarrituta. Hori guztia, jakina, laguntzen ditugun pertsonen gizarteratze kultural, politiko eta laneko-gizarteratze prozesuak babesten dituzten gizarte-eragileekin sarean lan eginez.



@Zehar-Errefuxiatuekin/Maite Martínez

Javier Galparsoro Zehar-Errefuxiatuekin elkarteko presidentea da. Zuzenbidean lizentziaduna da Deustuko Unibertsitatean eta Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuan dihardu abokatu. 1996. urtean Zehar-Errefuxiatuekin elkartearen eraketan hartu zuen parte eta, orduetik, presidentea da.

Taldea hazten joan da urte hauetan guztietan. Nortzuk osatzen duzue?

Zehar-Errefuxiatuekin familia modu esponentzialean hasi da azken urteotan. Ni zuzendaritza-batzordeko kidea naiz. Zuzendaritza-talde bat dago, soldatapeko langileak daude zentro eta zerbitzu desberdinetan, boluntarioak, bazkideak eta, noski, Euskadin beren bizitza berregiten laguntzen diegun pertsona guztiak. 2022a amaitzean, Zehar-Errefuxiatuekin familia soldatapeko 57 pertsonak osatzen genuen (37 emakume eta 20 gizon), 55 boluntariok (42 emakume eta 13 gizon) eta 196 bazkidek (96 gizon, 99 emakume eta elkarte bat).

Zehar-Errefuxiatuekin programak duen arreta-ikuspegiak eredu indibidualizatu baten aldeko apustua egiten du, fokua pertsonarengan jarrita...

Guk beti egin dugu arreta indibidualizatuaren aldeko apustua. Pertsona bakoitza bakarra da, desberdina, eta, hortaz, bakoitzak jarraitzen duen ibilbidea ere. Ibilbideak, estrategia juridikoak, laguntza soziala eta psikologikoa...pertsona bakoitzaren egoerara moldatzen ditugu. Euren premiak oso desberdinak izan daitezke, egoerak oso desberdinak direlako. Ez dituzte behar berak Malitik pateran iritsi berri den gizon gazteak edo Kolonbiatik bere seme-alabekin datorren amabakarrak.

Zeintzuk dira zuen lan-ikuspegiak?

Gure ustez, gure esku-hartzeek eta gure intzidentzia-lanak ikuspegi intersektionala, psikosoziala, kulturartekoa, giza eskubideena eta feminista izan behar dute. Ikusmolde hau indartzeko, 2022an partaidetza-diagnostiko bat egin genuen, gure hirugarren berdintasun-plana egiteko lehen urrats gisa.

Zein da zuen 2022ko balorazioa babesaren arloan?

Sentsazio gazi-gozaok utzi dizkigun urtea izan da. Oro har, ez dago ezer ospatzeko, Ukrainako gerrak milioika pertsonaren desplazamendua behartu baitzuen Europa osoan eta horietako batzuk babes aurreratu zuten Euskadin. Berririo ikusi genuen euskal Gizartearen ahalegin guztiak egiten bonbetatik ihesean iritsi ziren errefuxiatuak laguntzeko. Erakundearen erantzuna ere azkarra izan zen eta aurretik inoiz erabilitako babes mekanismoak jarri zituzten martxan, aldi baterako babes arautzen duen Europako 2001/55 zuzentaraua aplikatu baitzuten. Polizia-etxeak azkar hasi ziren baimenak izapidetzen, eta administrazioak beharrezko baliabideak jarri zituen martxan, inoiz ikusi gabeko bizitasunarekin eta eraginkortasunarekin. Horrek agerian utzi zuen borondate politikoa dagoenean pertsonak babestu daitezkeela. Baina, tamalez, ez dugu erantzun bera ikusi Ukrainatik ez datozen pertsonen behar duten nazioarteko babeserako ohiko prozeduran. Hareago, oso katramilatsua eta geldoa da poliziarekin lehen hitzordua lortzea asilo eskari hau bideratzeko. Hortik dator gure sentsazio gazi-goza. Ukraina aukera bat izan zen gauzak hobetzeko, baina, tamalez, ez da horrela izan.

Zeintzuk dira zuen erronkak erakunde gisa?

Lehena eta oinarritzak, borrokan jarraitzea behar duenari asilo-eskubidea onartu dakion. Bigarrenik, garrantzitsua da harrera integralean aurrera egiten jarraitzea, epe laburreko ikuspegiak albo batera uztea, eta modu koordinatuan lan egiten jarraitzea babes bila iristen diren pertsonen gizarteratze-prozesuak ahalik eta beroenak, atseginenak eta eskubideen bermatzaileak izan daitezkeen. Azkenik, kulturarteko bizikidetzaren alde lan egiten jarraitzea, migratzaileei, errefuxiatuei eta pertsona arrazializatuak buruzko gezur arrazista eta xenofoboak desmuntatzeko.

Espainiak izango du Europar Batasuneko hurrengo lehendakaritza eta bertan Asiloari eta Migrazioari buruzko Europako Ituna onartzea aurreikusten da, nahiz eta gure erakundearen EBn babes-eskatzailen oinarritzak eskubideen murrizketa salatzen jarraitzen dugun, itzulketak, mugetako itzultzeak eta atxilotzeak izateko arriskua handitzen baitute.

Beste behin ere, 2015eko krisian bezala, EBeko 27 kideen arteko elkartasunaz eta bidezko banaketaz ari gara. Baina, hainbat herrialdek (Visegradoko taldeak) ezezkoa eta eszeptizismoa erakutsi dute berririo. Birkokatzea ala ordaintzea? Aurka dauden herrialdeei onartzen ez duten pertsona bakoitzeko 20.000 eurora arteko zigorrak ezartzea aipatzen ari dira batzuk.

Bitartean, UNHCR-ek 2022ko babes-estatistikak argitaratu ditu. Dagoeneko, 108,4 milioi pertsona desplazatu dira bortxaz mundu osoan. Iaz, 2,6 milioi nazioarteko babes-eskari berri jaso ziren eta Espainia da eskaera gehien jaso dituen laugarren herrialdea (118.800).

Ezinbestekoa da bide legalak eta seguruak areagotzea. Itsasoko heriotzak eta desagertzeak murrizteko erabateko bermeak izango dituzten bilaketa- eta salbamendu-operazioak behar dira. Bisak emateko eta birkokatze prozesuak hobetu behar dira, giza korridoreak ezarri eta prozedurak sinplifikatu eta arindu behar dira, legez kanpoko deportazioak saihesteko.


2022EKO JARDUERA NAGUSIAK

ESKU-HARTZEA

LEIHATILA BAKARREKO ZERBITZUA (LEHEN ARRETA)


Bizkaian 1.047 pertsona iritsi ziren gure bulegora babes bila. Pertsona horiek 608 bizikidetzako unitate osatzen zituzten.

Lehen arretako pertsonen perfila



Pertsona hauek, harrera elkarrizketetan, gizarteratze-teknikariak egoeraren diagnostikoa egin ondoren, beren eskaeren eta premien inguruko informazioa eta orientazioa jaso zuten.

Gipuzkoan, guztira **206** pertsona jaso zituen zerbitzu berak.




IBILBIDEAN

Hasierako diagnostikoa egin ondoren, pertsona guztien beharrei erantzun onena ematen saiatzen gara, bai gure laguntza-bideen bidez, bai beste erakunde batzuek

eskaintzen dituztenen bidez, zeintzuekin koordinatuta lan egiten dugun.

Zehazki, Bizkaian lagun egin genien:

Perfil personas en itinerario



Gipuzkoan, guztira 36 ibilbide lagundu genituen.

Familiak: 14

Bakarrik etorritako gizonak: 7


Gizon gazteak: 7

Emakumeak: 8

ERREFERENTZIARIK GABEKO ARRETA PUNTUALA (EAP)

EAP gizarte-arretako elkarrizketak aldizka egiteko gune bat da. Gune horietatik dagokion jarraipena, laguntza eta esku-hartzea egiten zaio pertsonari, bere egoerara egokituz. Espazio arina da, eta helburu nagusia informazioa ematea, orientatzea eta beharrezko deribazioak egitea da.

Bizkaian 179 pertsona artatu ziren zerbitzu honetan.



AZKEN SAREA INDARTZEN - Ucraina

Eusko Jaurlaritzaren Isuri Funtsaren baitan, Ukrainatik etorritako eta harreraren hartutako bizikidetzako unitateen laguntza ekonomikoak bideratu genituen, eragindako gastuei aurre egiten laguntzeko eta, bereziki, oinarrizko premiak asetzeko.

Zehazki, Bizkaian 79 familiaren laguntzak kudeatu genituen eta 129 pertsona izan ziren onuradunak (horietatik 69 adinez txikikoak ziren).

Gipuzkoan 79 bizikidetzako unitatek jaso zuten laguntza hau, guztira 162 pertsonak (70 adinez txikikoak ziren).

GOIHABE PROGRAMA

2016an hasi zenetik, Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatutako programa hau gauzatu dugu, Gurutze Gorriarekin, Caritasekin, Ellacuría Fundazioarekin eta Lagungo Fundazioarekin batera. Goihabereren bitartez, prebentzioz esku hartzen dugu eta egoera zaurgarrienean dauden errefuxiatuen gizarteratze ibilbideen jarraipena bermatzen dugu. Pertsona hauek, edo ez dute estatuaren harrera-programarako sarbiderik, edo kontrako ebazpen bat jaso dute eta horrek irregulartasun egoerara eramán ditu.

Gure lana haien autonomia sustatzean datza, Ongizate Sistema Publikorako sarbidean eta gizarteratzeko eta laneratzeko bidean lagunduz.

2022an, guztira, 216 pertsona (95 bizikidetzak-unitate) artatu genituen.



@Zehar-Errefuxiatuekin/Maite Martinez

HARRERA PROGRAMA

Harrera programaren bidez kalteberatasun-egoeran dauden migratzaileei egiten zaie harrera. Programak 4 harrera-etxebizitza ditu eta, horien bidez, guztira 47 pertsona hartu genituen 2022an. Arreta ematen diegun pertsonak duten zailtasun handienetako bat etxebizitzarako sarbide autonomoa da, eta horrek Harreraren esparruan egiten diren esku-hartzeen eta akonpainamenduen arrakasta bermatuko luke.

HEMEN PROGRAMA

Hemen programa hainbat gizarte-erakundek osatzen dugu eta Bizkaiko Foru Aldundiak finantzatzen du. Zehar-Errefuxiatuekin da partzuegoaren buru 2008az geroztik. Arreta Espezifikorako Programa gisa definitzen da Hemen, eta bidaidetik gabeko migratzaile adingabe izandako gazteei zuzenduta dago, alegia, Umeentzako Arreta Zerbitzutik irten ondoren, gazte estrategiaren gainerako baliabideak eskuratu ezin dituztenei.

luz, guztira 245 gazte artatu genituen, zeinak, Bizkaiko Foru Aldundiaren adingabeen babeserako zentroetan 12 hilabete baino gutxiago egon ondoren, zaurgarritasun eta babesgabetasun egoera berezian zeuden. Gainera, noizbehinkako laguntza eskaini genion programaren erabiltzaile izandako beste 65 pertsonari (tutoretzarik gabeko gazteak), informazio, orientazio eta dokumentazioa izapidetzeko zenbait ekintzarekin.

Urtean zehar ikastaro sozialak egin genituen dauden gizarte-prestazioei eta baliabideei buruz eta herritar gisa dituzten eskubideak eta betebeharrak baliatzeak duen garrantziaren inguruan. Gainera, zenbait ikastaro eman genituen osasunari buruz, legezko kontuei buruz, prestakuntza-saioak... ahaztu gabe Hemen programaren funtsezko atala diren aisialdiko eta parte-hartze sozialeko jarduerak.

Azkenik, azpimarratzekoa da Elxeko Miguel Hernandez Unibertsitatean egindako Maskulinitate eta Berdintasun Nazioarteko Kongresuan egin genuen aurkezpena. Ikerketa bat aurkeztu genuen generoaren inguruko ibilbideen, hausnarketen eta aldaketen inguruan zirkulazio migratorioari lotuta, zehazki, zaurgarritasun egoeran zeuden 17 gazte arrazializatuen maskulinitateen eraldaketaren inguruan.



© Zehar-Errefuxiatuekin/Maite Martinez

ZENTROAK

2022an Oñatiko Larraña Etxeak 309 pertsona hartu zituen (% 56 emakumeak ziren eta % 44 gizonak) eta Tolosako Zuloaga Txikik 116 (% 89 gizonak ziren eta % 11 emakumeak). Horietan familien harrera da nagusi, batez ere Larraña Etxean, gehienak adingabeak ardurapean dituzten emakumeak baitira.

Tolosako zentroak, bere ezaugarriengatik, beste profil batzuei erantzuten die. Gehienak, bakarrik etorritako gizon gazteak dira.

Oñatiko harrera-zentroan 23 nazionalitate desberdinetako pertsonak bizi ziren: Mali, Aljeria, Errusia, Etiopia, Ukraina, Maroko, Georgia, Brasil, Peru, Senegal, Tunisia, Kolonbia, Boli Kosta, Sahara, Irak, Serbia, Venezuela, Kamerun, Kuba, El Salvador, Jordania, Nigeria eta Palestina.

Tolosako zentroan bizi ziren pertsonak 25 herrialdetatik zetozen: Nigeria, Maroko, Gambia, Aljeria, Venezuela, Ginea, Mexiko, Kolonbia, Albania, Palestina, Sudan, Mali, Errusia, Kongoko E.D. , Egipto, Libia, Boli Kosta, Irak, Senegal, Afganistan, Burkina Faso, Ukraina, Eritrea, Pakistan eta Bangladesh.

Ukrainako gerra hasi zenean, etxe hauetan herrialde horretatik ihesean iritsi ziren pertsonak ere hartu zituzten. Gehienak ama bakarreko familiak ziren, batzuetan hiru belaunaldiekin (amamak, amak eta alabak).

Bai Larraña Etxea eta bai Zuloaga Txiki espazio seguruak dira eta pertsonak, lehendabizi, atsedean hartzeko leku bat aurkitzen dute. Ondoren, bizitakoa barneratzen dute eta berriz eraiki behar duten bizitza berriari forma ematen hasten dira, eta bakoitzak bere egoera partikularren arabera behar duen tratua jasotzen du. Ostaturia eta oinarritzko premien asetzeaz gain, asiloa eskatzeko eta gizarte- eta lan-orientaziorako laguntza juridikoa ematen zaie, besteak beste.

Eguneroko bizitza garatzeko, funtsezkoa da inguruko bizilagunen laguntza. Elkarrenganako aitortzak eta partekatutako espazioek, bai adingabeen artean eta bai helduen artean, konfiantzazko eta hurbileko inguruak sortzen dituzte, eta tokiko administrazioek ere parte hartzen dute horietan.



@Zehar-Errefuxiatuekin/Maite Martínez

ARRETA JURIDIKOA

Arlo juridikoak aholkularitza eta laguntza juridikoa eskaintzen dizkie nazioarteko babes eskatzaileei, errefuxiatuei, aberrigabeei eta zaurgarritasun egoeran dauden migratzaileei.

Zehar-errefuxiatuekinek egiten duen esku-hartze integralak eta beste arlo batzuetan espezializatuta dauden eragileekin sarean lan egiteak (esaterako, LGBTIQ+ kolektiboa, genero indarkeriaren biktima izandako emakumeak, pertsonen-salerosketaren biktima izandakoak, familia-erreferenterik gabeko gazteak...) nazioarteko babes eskatzeko espediente juridikoan informazio garrantzitsua txertatzen laguntzen digu.

Era berean, azpimarratu nahi dugu nazioarteko babes eskaria ukatu zaien pertsonen ematen diegun arreta espezializatua, beren migrazio-prozesuari legezko erantzuna ematen baitiogu.

Zerbitzu juridikoak arreta berezia eskaintzen dio genero-ikuspegiari, premia zehatzei erantzuna emateko eta tratamendu berezitua eta espezializatua emateko beharrezko neurriak hartzeko.



NAZIOARTEKO BABESAREN BIDEA JARRAITU DUTEN PERTSONAK:

767 pertsona artatu dira

- Kolonbia (% 22)
- Venezuela (% 21)
- Nikaragua (% 6)
- El Salvador (% 5)
- Honduras (% 5)

FAMILIA-ERREFERENTERIK GABEKO GAZTEAK:

- Artatutako pertsonak: **310**
- Egoitza-baimenak: **84**
- Berraztertzeko errekurtsoak: **5**

ESKATUTAKO BAIMENAK ETA UKATUTAKO KASUETAN JARRITAKO HELEGITEAK:

- Egoitza-baimenak: **51**
- Herritartasun-baimenak: **4**
- Berraztertzeko errekurtsoak: **17**
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoak: **3**

ATZERRITARTASUNA:

719 pertsona artatu ziren atzerritartasun arloan erregulartasuna lortzeko prozesuei (errotze soziala eta lanekoa eta formakuntzarako) eta nazionalitate prozesuei lotuta.

URRETXINDORRA PROGRAMA



Urretxindorra beste eragile batzuekin elkarlanean garatutako gizarte-aholkularitza programa bat da. Zehar-Errefuxiatuekinek bultzatu zuen iaz Gasteizen. Alde batetik, mentoreek hartzen dute parte: ikasten edo lanean dauden eta aisialdiko jarduera osasungarri bat praktikatzen duten 19 eta 30 urte bitarteko gazteak. Bestalde, aholkularitza jasotzen duten mentoratuak daude: nerabezaroaurrean dauden gazteak eta beren familiekin batera migrazio-prozesu batean daudenak.

Programaren xedea da, mentoreek, beren esperientzia eta ezagutza baliatuta, mentoratuak laguntzea hazkunde-pertsonaleko prozesuan. Bikoteak astean behin elkartzen dira aisialdiko jarduerak egiteko. Gainera, hiru hilean behin parte-hartzaile guztiak elkartzen dira ekintzaren bat egiteko.

Asmoa mentoreen eta mentoratuen arteko loturak sendotzea da, elkarren artean sortzen doan konfiantzazko harreman pertsonalari esker. Horrela, mentorea eredu positibo eta erreferente bilakatzen da mentoratuarentzako. Horrek adingabearen konfiantza pertsonala eta soziala, autoestimua eta gaitasun pertsonalak, funtzionalak eta sozialak garatzen eta indartzen laguntzen du.

2022ko ekimen pilotua udan gauzatu zen lau familiarekin eta gerora urteko programari eman zitzaion bide, **16 bikotekiderekin** (guztira **32** parte-hartzaile). Mentoreak batez ere herrialde hauetakoak izan ziren: Kolonbia, Txile eta Euskal Herria. Mentoratuak, nahiz eta askok Espainiako nazionalitatea izan edo/eta egonaldi luzeko baimena izan arren, honako herrialdeetakoak ziren: Nigeria, Kolonbia, Peru, Ghana, Pakistan, Venezuela, Paraguai, Ginea Konakry eta Kamerun.

2023an, programa Gasteiz ez den beste udalerrri batzuetan ere garatzen saiatuko gara, lurraldeko kuadrilletan bizikidetza sustatzeko egiten ditugun ekintzekin koordinatuta.

INTZIDENTZIA ETA PARTE-HARTZE SOZIALA

Deserrotuak

EBizitzarako ezinbestekoak diren lurraldeak eta habitatak suntsitzea onartzen duen eredu ekonomiko, politiko eta sozial batean bizi gara; baina, praktika hauen ondorioz ihes egin behar duten pertsonen lekualdatzeak deslegitimatatu eta kriminalizatzen ditu. Testuinguru horretan, urteak daramatzagu prozesu batean murgilduta, eta 2022tik DESERROTUAK lelopean egin dugu. Migrazio klimatikoaren inguruan gailentzen ari diren eztabaidetatik haragoko begirada bat eskaintzen saiatu gara bortxazko desplazamenduen inguruan, giza eskubideen ikuspegiarekin, botere korporatiboaren eragina kontuan hartuta eta ekofeminismoaren proposamenak aintzat hartuta.


2022an prozesua **Deserrotuak, klima aldaketak behartutako desplazamenduen inguruko interpretazio kritikoa** bat

izeneko txostena argitaratzen amaitu genuen. Ondasun guztiez gabetzearen eta ingurumenaren degradazioaren ondorioz beren herrialdeetatik ihes egin behar izan zuten pertsonen egoera landu genuen. Botere korporatiboak emakumeen bizitzan duen eragina, lurraldeko defendatzaileek bizi dituzten egoerak, nazioarteko babesaren arloko aurrerapenak eta atzerapenak aztertu genituen, eta eskaera zehatzak jaso genituen klima-aldaketarekin, enpresa-boterearen fiskalizazioarekin, mugei buruzko politikekin, eta ihes egiten dutenen harrera eta nazioarteko babesarekin lotuta. Txostenean eredu hori ilustratzen duten lau herrialde zerrendatu genituen: Yemen, Kongoko E.D., Senegal eta Kolonbia. Horietan, erauzketa-industrien eragina, desplazamenduak eta euskal enpresen interesak jorratu genituen.

Beste hainbat ekintza ere egin genituen:

- Sareko lan horri esker, jarrera politikoa adostu ahal izan genuen, eta dagoeneko 60 atxikimendu baino gehiago lortu dituen **manifestu** publiko bat adostu genuen.
- Minutu bateko **spot batean** gure jarrera eta kanpaina azaldu genituen sare sozialetan.





- Misio bat egin genuen kazetariekin, Kolonbiako Antioquiako Hidroituango proiektuaren ondorioak ezagutzeko eskubide ekonomiko, sozial, kultural eta ingurumenekoen (EESKI) urraketan (komunikazioaren arloan xehetasunez azaltzen da).
- **Deserrotuak kongresua:** Lekualdatze behartuak, ingurumen-degradazioa eta giza eskubideak Irakurketa politiko bat, lekualdatzera behartua izan gabe bizitzeko. Antonio Turiel zientzialariak, Miriam García Torres ekofemistak, lurraldearen defendatzaile Leiria Vay eta Dalila Arguetak eta beste kide batzuek eredu estraktibistaren, jazarpenaren eta behartutako desplazamenduen inguruko ikuspuntu desberdinak ekarri zizkiguten. Garapen-proiektu handien inpaktuak, trantsizio berdearen falazia, emakume defendatzaileen rola, babes-mekanismoak eta tokiko alternatibak landu genituen. Mujeres del Mundo elkarteko kideekin amaitu genuen, beste Bizileku Posible batzuetan pentsatzera animatuz. Hitzaldiak gure **Youtubeko** kanalean daude ikusgarri eta entzungarri.

BIZIKIDETZA

IAGORAtorioa

Elkartzeko, elkarrizketarako eta formakuntzarako espazio honek fokua jarri zuen migratzaileek, errefuxiatuek eta pertsona arrazializatuek berdintasunezko eta diskriminaziorik gabeko tratua jasotzeko duten zailtasunean.

17 topaketa antolatu genituen pertsona migratu eta/edo arrazializatuekin eta zenbait udaletako teknikari zein politikariek. Guztira, ia 150 pertsonak hartu zuten parte.

En total participaron casi **150 personas**.

Diagnostiko horretan diskriminazio esperientziak eta bizipenak partekatu zituzten (zuzenak eta zeharkakoak), eta honako eremu hauetan sakondu zuten:

- Etxebizitza alokatzerakoan diskriminazioa.
- Diskriminazioa banku-kontuak irekitzean.
- Diskriminazioa polizia-identifikazioetan.

Bizilagunak

Bizikidetzaren eraikitzeak elkarguneak sortu behar dira, elkarrekin bizitzen ikasteko, elkar ezagutzeko eta elkarri aitortza egiteko. Baina, askoz osagai gehiago ere behar dira.

Horregatik, 2022an Bizilagunak deituriko kulturarteko bazkariak antolatu genituen Araban. Lurralde osoko kuadrilla guztiek hartu zuten parte herri bazkarietan, etxeetan egindako bazkarietan, txokoetan... Batzuk erdibideko formatu baten aldeko apustua egin zuten, hau da, herriko aniztasuna ikusarazteko bazkari herrikoia bat baina mahai txikitara banatuta, talde txikiago eta intimoetan hartu-emana eta elkarrizketa sustatzeko. Guztira, 38 jatorri kultural desberdinetako 1.048 pertsonak hartu zuten parte 2022ko Bizilagunak edizioan.



Amaitzeko, abenduaren 17an Bizilagunak dinamikaren amaiera jaia ospatu genuen Amurrioko antzokian, 140 parte-hartzaileekin.



@Zehar-Errefuxiatuekin

Zurrumurruen aurkako estrategia eta kulturen arteko bizikidetza Araban

Arabako landa eremuko auzokideak beste urte batez antolatu dira inguruko aurreiritziak eta estereotipoak desagerrarazteko. Zurrumurruen aurkako taldeak dira Aiaraldean, Mendialdean, Lautadan, Añanan eta Gorbeialdean bizikidetza errealitatea bihurtu dadin lan egiten dutenak.

2022an aipatutako bost kuadrilletan kulturarteko bizikidetza kartografiatzen hasi ginen, hau ere Arabako Foru Aldundiaren kulturarteko bizikidetzarako aniztasunaren kudeaketa estrategiaren baitan.



Artziniega: emakume musulmanen eta janzkeraren inguruko hitzaldia.

Amurrio: Sustriak Errotzen, herriko migrazioen inguruko partaidetza-bideoa.



Izarra: bilakaera ikastaroa, herriaren bizikidetza mapa sortzeko talde-espazioa.

Intersekzionalitatea: errefuxiatua eta funtzionalki anitza

Bizkaian bizi diren errefuxiatuen artean, desgaitasun fisiko eta/edo organikoren bat dutenek, desgaitasun intelektuala edo garapeneko edo zentzumen-desgaitasuna duten pertsonak ikuspuntu bikoitzetik egin behar diote aurre gizarteratzearen erronkari: beren dibertsitate kulturaletik eta beren aniztasun funtzionaletik, pertsona gor edo itsu gisa edo gaitasun fisiko eta mental desberdinak dituzten pertsona gisa. Intersekzioak diskriminazio egoera berriak eragiten ditu.

Proiektu honetan diagnostiko bat egin dugu aniztasun funtzionalaren esparruan lan egiten duten eragile desberdinekin elkarlanean.


Hortik abiatuta, kontraste-jardunaldi bat egin genuen, non praktika onak eta ekintzarako proposamen dekalogo bat partekatu genuen, erakundeetan eta gizarte eragileetan desgaitasunaren eta asiloaren eremuan esku-hartzeko eta eragiteko ereduak berrikusten hasteko, tratu berdintasuna bermatu dadin.

Elkarrekin bizitzen ikasi

Elkarrekin bizitzen ikasi Gasteizko Udalaren ekimen bat da. Ziklo horretan programatutako hainbat ekintza Zehar-Errefuxiatuekin eraman zituen aurrera.

ABCdarioa:

Ekainaren 20aren testuinguruan, Errefuxiatuen Nazioarteko Egunean, bideo bat atera genuen Gasteizen elkarbizi diren kultura desberdinak ikusarazteko eta aitortzeko. Ikusi bideoa [HEMEN](#).



Ipar Basatia dokumentalaren proiektioa

Dokumentala Florida zinemetan eman zen eta ostean bertaratutako publikoarekin elkarrizketa bat antolatu zen. Ipar Basatiak dokumentalak milaka pertsonak munduko bi muga handienetakora egiten duten bidaiak jasotzen du: AEB eta Mexiko batzen dituen eta Espainiaren eta gainerako Europaren artekoa. Bidaietan jasandako indarkeriaren gordintasuna eta paisaiaren edertasuna kontrajartzen dira sinbolismoz betetako kontakizunaren bidez.

Pronoia

Eginaren Eginezekin elkarlanean Pronoia-ren emanaldi bat antolatu genuen, Virginia Imazen antzezlan, pailazo profesionala eta Oihulari Klown antzerki taldearen sortzailea. Lanak pertsona guztientzako poztasuna eta ongizatea aldarrikatzen ditu, baita desgaitasunen bat dutenena ere. Horregatik aldarrikatzen du irisgarritasun unibertsala. Besteen azalean jartzeko gonbita luzatzen du eta umorearen bidez aurreiritziak eta estereotipoak aldatzen saiatzen da.

TEATRO



PRONOIA
Espectáculo de teatro clown para público adulto



Hitzaldia: Zer aldarrikatzen dugu, berdinak ala desberdinak gairela?

Andrea Ruiz Balzolak eta Daniel Bernabék eman zuten hitzaldia antolatu genuen. Eztabaida honako galdera hauen inguruan antolatu genuen: **Zer harreman dute desberdinkeriak eta desberdintasun irizpideek? Posible da berdintasuna bilatzea lehiatik eraikitako indibidualismotik abiatuta? Zer neurritan eragin dute pandemiak eta ondorengo krisiek prozesu hori berrabiatzea?**

Ausartak

2022an, Eraberean sarearekin (tratu-berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako euskal sarea) egindako lanaren baitan, diskriminazio kulturala, sexuala eta funtzionala jorratu genituen. Ridouan Chakouch-ek (Agharas elkarte) lagundu zigun 'Historias de arena y sal' (euskaraz hondar eta gatz istorioak) antzezlanarekin. Bertan, ikusmen urritasuna duen lagun amazig baten bizitza kontatzen du. Marokoko haurtzarotik helduarorako bidaia da, Espainiako estatuko mugatik igarotakoa.

Hiru aktibisten testigantzak ere jasotzen ditu, kultura-, sexu- eta funtzionalitate-arrazoiengatik oztopo, traba eta diskriminazio-egoerei aurre egin behar dietenak. Publikoarekin elkarriketan, bizipenez gain, tresnak, jardunbide egokiak eta laguntza-sareak partekatu zituzten, egoera horiei aurre egiteko eta beren eskubideak bermatzeko.



ARRISKU-EGOERAN DAUDEN GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEAK BABESTEA

Giza Eskubideen Defendatzaileak Babesteko Euskadiko Programa

Urtarrilean, Kolonbiara bidaiatu zuen euskal ordezkari batzuen hartu genuen parte. Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak, eLankidetzak, Mugarik Gabek eta Alboanek osatu zuten, Zehar-Errefuxiatuekin gain. Misioren helburua izan zen azken urteotan **Giza Eskubideen Defendatzaileak Aldi Batez Babesteko Euskadiko Programan** parte hartu duten defendatzaileen eta kolektiboen egoeraren jarraipena egitea.



Bestalde, 2022an, Mugarik Gaberekin elkarlanean eta programa horren barruan, arrisku-egoeran zegoen defendatzaile bat eta bere semea hartu genituen Euskadin. Luz Mary Osorio lider indigena senua da, Antioquia departamentuko (Kolonbia) Behe Cauca dagoen Puerto Belgica las Plamas resguardoko kazikea, Caceres udalerriko komunitate indigena eta nekazarien ordezkaria, bitartekari komunitarioa eta emakumeen eskubideen arloan trebatzailea.



Horrez gain, Antioquiako Erakunde Indigenaren (OIA, gaztelaniazko sigletan) kide da, eskualdean bizi diren bost herri indigenak ordezkatzeko dituen kabildo indigenen elkartearen kidea. Hauek dira barne hartzen dituen herri indigenak: Zenu, Embera Eyabida, Embera Dobida, Embera Chami eta Guna Dule. Duela 30 urte baino gehiagotik, OIAk herri indigenen eskubideak aldarrikatzen ditu. Bere borroka gobernu indigenak eratzean eta sendotzean, lurraldeen onarpenean eta titulazioan, eta bizitzaren eta giza eskubideen defentsan oinarritu zuen, gerraren erdian bizitzeko eta bizirauteko estrategia gisa; izan ere, aberastasun naturalen interes ekonomikoak eta lurraldean eragile armatu ezberdinak egotea dira indigenen arteko mehatxuen, desplazamenduen eta hilketen erantzuleak.

Luz Mary eta bere semea EA Era iritsi ziren euren buruak fisikoki eta emozionalki indartzeko, eta nazioarteko laguntza-sareak zabaltzeko eta indartzeko agenda politiko bat garatzeko, beren lurraldeetara segurtasun eta babes handiagoko baldintzetan itzultzeko.

Arriskuan dauden defendatzaileentzako aholkularitza eta akonpainamendua

2022an, giza eskubideen defentsarako **20** erakunde eta kolektibo baino gehiagori lagundu genien Kolonbian, Hondurasen, Nikaraguan, Brasilen, Mexikon eta Ugandan besteak beste. Orientazioa eman genien Espainiako estatuan nazioarteko babes eskuratzeari buruz; informazioa Euskadin, Espainiako estatuan eta Europan aldi baterako babes-mekanismoen inguruan; eta ekintza bateratuak antolatu genituen beste babes-erakunde eta sare batzuekin, haiekin aliantza estrategikoak egiteko.

Sareetan eta aliantzetan parte hartzea

Babes integral feministan **10 urte baino gehiagoko esperientzia** dugu eta nazioarteko sareen aldeko apustuan berresten gara Giza Eskubideen defendatzaileak babesteko, eta bizitza duina, lurraldea eta bakea justizia sozialarekin defendatzen duten borroka sozialak indartzeko.

Analisi eta diagnosi prozesu bati ekin genion giza eskubideen aldeko kolektibo eta erakundeek dituzten babeserako beharretan sakontzeko, bai eta Euskal Programak premia horiei erantzuteko duen gaitasunean, eta horrela hazten eta ikasten jarraitu dezagun. Horretarako, hainbat elkarrizketa, ikastaro eta topaketa antolatu ditugu eta, horiei esker, kolektiboki eraikitzen jarraitu eta lurraldeetan eusten jarraitzen duten antolakundeetatik ikasi dugu. Orain arte, Latinoamerikako hainbat lurraldetako erakundeek, Euskadiko nazioarteko lankidetzak eta elkartasun-erakundeek eta babesean adituak diren antolakundeek parte hartu dute.

Otsailean Lumaltik Herriak antolatutako nazioarteko jardunaldietan hartu genuen parte, Lurralde feministak: ahizpatasuna, migrazioak eta zaintzak izenekoetan. Gune horretan esperientziak eta jardunbide egokiak partekatu ahal izan genituen Erdialdeko Amerikako defendatzaileekin, baita zaintza lanak lurraldeko defentsa feministako prozesuen erdigunean nola kokatu hausnartu ere, emakume desberdinen arteko estrategiak eta aliantzak eraikitzen laguntzeko, interseksionalitatea aitortuz eta pribilegioak zalantzan jarritz.

Apirilean, I Jornadas Galegas sobre Protección e Defensoría de Mulleres Defensoras de Dereitos Humanos jardunaldietan hartu genuen parte (euskaraz, 'Giza Eskubideen Emakume Defendatzaileen Babes eta Defentsaren inguruko I. Jardunaldi Galegoak'). Hauen helburua zen Espainiako estatuan Giza Eskubideen defendatzaile diren emakumeak babesteko eta defendatzeko sistemak edo estrategiak sortzen laguntzea eta Galizian giza eskubideen defendatzaile diren emakumeak babesteko ildo bat garatzeko aukerari buruz hausnartzea. Nazioarteko beste topaketa batean ere hartu genuen parte: Tejiendo alianzas ecofeministas contra el poder corporativo (euskaraz, 'Aliantza ekofeministak ehuntzen botere korporatiboaren aurka'). Topaketak hainbat helburu zituen: nazioarteko sareak indartzea; erresistentzia, babes eta sendatze feministako estrategietatik ikastea; eta alternatibak eraikitzeke proposamen ekofeministak ezagutzea.

Kolonbiako gatatzaren biktimak aitortzeko ekitaldietan parte hartzea

Uztailean, Kolonbiako Egiaren Batzordearen Azken Txostenaren Europako Aurkezpenean parte hartu genuen, bai eta Kolonbiako Egiaren Batzordearen (CEV gaztelaniazko sigletan) laguntzeko Europako nodoekin lan egiteko espazioetan ere. Azken Txostenak, Egiaren Batzordeen historian lehen aldiz, atal bat jasotzen du erbestea giza eskubideen urraketa

gisa adieraziz eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa aipatuz, baita milaka kolonbiar beste herrialde batzuetara bortxaz migratzea behartu dituen indarkeriaren dimentsioa, arrazoiak eta patrioiak ere. Gainera, pairatzen dituzten ondorioak eta biktimen arteko erresilientzia erakusten ditu.

Irailan, Kolonbiako Bakearen aldeko Parlamentuen arteko II. Topaketan parte hartu genuen, herrialdean bakea eraikitzen laguntzeko eta errazteko elkarrekin lan egiteko helburu nagusiarekin, giza eskubideen bermeari eta horiek defendatzen dituzten pertsoneri arreta berezia eskaintzen dien ikuspegitik. Topaketa hori Espainiako estatuko Plataformak eta Erakundeak Koordinatzeko Guneak (Zehar-Errefuxiatuekin parte hartzen duen Kolonbiarekiko Elkartasun Plataformak) eta Eusko Legebiltzarreko Kolonbiako Bake Prozesua Babesteko Taldeartekoak bultzatu zuten.

PARTE-HARTZE SOZIALA

Errefuxiatuen nazioarteko eguneko mobilizazioak

Ekainaren 20an, Errefuxiatuen Nazioarteko Egunean, Zehar-Errefuxiatuekin elkarteak kaleko ekintzak egin zituen beste 26 gizarte eragile eta mugimendurekin Bilbon, Donostian eta Gasteizen.

Ekainaren 19an, igandean, manifestazioa egin zen Donostian. Mobilizazioa Aquariumean egin zen eta Alderdi Ederrerraino iritsi zen. Bidean hainbat geldialdi estrategiko egin ziren zenbait aldarrikapen egiteko. Manifestazio horretan 400 pertsona inguruk hartu zuten parte.

Ekainaren 20an, astelehenean, Bilboko eta Gasteizko ekitaldiak egin ziren:



Gasteiz: elkarretaratzea egin zen Andre Maria Zuriaren plazan. Elkarretaratzean, Karabankunda Kultur Elkarteak perkusio eta dantza senegaldar erakustaldia egin zuen. Elkarretaratze horretan **250** pertsona inguru bildu ziren.

Bilbo: manifestazioa egin zen Arriaga plazatik Moyua plazaraino. Manifestazioa Batikumba taldeak girotu zuen eta **250** lagun inguru bertaratu ziren.



Bitarteko komunitarioekin batera egindako jarduerak

Zehar-Errefuxiatuekin elkartean 5 urte baino gehiago daramatzagu komunitatearen parte-hartzea lantzen, migratzaileen eta errefuxiatuen gizarteratze-prozesuaren zati gisa, haien harreman-ongizatea eta gizartean eragiteko gaitasuna indartuz. Horretarako, ekintza politiko eta interkulturalak jartzen ditugu martxan, eragile komunitarioekin batera.



2022an 27 jarduera egin genituen Euskal Autonomia Erkidego osoan (hiru Araban, 11 Bizkaian eta 13 Gipuzkoan), 20 gizarte-, kirol-, komunitate-, publiko-, arte- eta migratzaile-erakunderekin baino gehiagorekin batera.

Askotariko jarduerak izan ziren: futbol partidak, mendi irteerak, eragin politikoko tailerrak, kulturarteko bazkariak, herri lasterketak, sentsibilizazio jardunaldiak, kontzertuak, baratzeko lanak, konpontze-lanak, bizikleta ibilaldiak, piraguismoa edo elikagaien bankuari laguntzea, besteak beste.



KOMUNIKAZIOA

Sare sozialak

Guztira: 12.500 jarraitzaile inguru sare sozialetan

Twitter: 2.844 jarraitzaile

Instagram: 1.831 jarraitzaile

Facebook: 5.468 jarraitzaile

Linkedin: 1.961 jarraitzaile

Telegram: 133 jarraitzaile

Youtube: 332 jarraitzaile

Webgunea: 46.613 erabiltzaile

Inpaktuak komunikabideetan

200 inpaktu inguru erregistratuta **prentsan, irratian, telebistan** eta **Interneten**

Beste kanal batzuk

Oinarri sozialari bidalitako informazio buletinak: 8

Prentsa-oharrak: 13 bidalketa gure komunikabideen datu-baseari

Ukraina komunikabideetan

Ukrainan gerra hasi eta egun gutxira hasi ziren lehenengo errefuxiatuak Euskadira iristen. Oñatiko Larraña Etxea eta Tolosako Zuloaga Txiki zentroetan larrialdiko baliabideren bat behar zuten pertsonak jaso zituzten.

Komunikabideen interesaren aurrean, Eusko Jaurlaritzarekin batera prentsa jardunaldi bat antolatu genuen. Larraña Etxean hartutako bi familiak hartu zuten parte eta 16 komunikabidek jarraitu zuten topaketa.

Oksanaren eta Ksenniaren istorioak

Oksana otsailaren 24an atera zen Irpinetik, Kievetik oso gertu dagoen udalerria. Goizaldean, senarrak esan zion gerra hasi zela. Azken unera arte dena amesgaizto bat izango zelako esperantza izan zuela azaldu zuen, eta ez zela benetako egoeraz jabetu soldadu errusiarrak bere herrira iristen ikusi zituen arte. Hori gertatu bezain laster, suhiaren autoa hartu eta alde egin zuen Natasha alabarekin eta bilobarekin, behar-beharrezko gauzak soilik hartuta.

Bere asmoa Euskadira iristea zen, bertan duela urte batzuk harrera-programa batean ezagutu zuen familiarekin elkartzeko. Bere senarra, semea eta suhia Ukrainan geratu ziren.

Kseniia ere Vishgorodeko etxetik alde egin behar izan zuen. Amabakarra da eta hiru seme-alaba ditu, eta alde egin aurreko uneetan beldurra eta ziurgabetasuna sentitu zituen. Seme-alabak izututa zeuden hegazkinen zaratarekin eta bonbardaketekin, eta berak ez zekien zer egin. Lagun batek esan zion Frantziara zihoala bere bi seme-alabekin, amaginarrebarenean salbu egon zitezten, eta orduan hartu zuen berarekin joateko erabakia. Bere lagunaren eskaintza izan zen Kseniia Ukrainatik bakarrik eta hiru haurrekin irteteko zuen aukera bakarra, bere ama eta beste hainbat pertsona maite atzean utzita.



Elkarrizketak emakume errefuxiatuekin

Ekainaren 20aren bezperan, Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna, ohiko prentsaurrekoa antolatu genuen, CEARekin batera, komunikabideen aurrean Euskadiko babeslekuaren egoerari buruzko datuak eta analisiak aurkezteko. 11 komunikabidek eman zuten topaketaren berri.

Gainera, kazetariak hiru emakume errefuxiatuekin solasaldi bat ikusi eta bertan parte hartu ahal izan zuten: Skarlet Khamad, gerra piztean bere herrialdetik ihes egin zuen

ikasle ukrainarra; Fernanda Falcão, brasildarra, trans emakumea eta giza eskubideen defendatzailea; eta Khatera Dadfer, afganiarra eta bere jatorrizko herrialdeko emakumeen eta nesken eskubideen defendatzailea. Komunikabideen interesa piztu zuten hiru jazarpen eta harrera istorio. Hitzaldia streaming bidez eman genuen gure **Youtubeko kanalean eta 181 bisita lortu zituen.**



Kazetariekin Kolonbiarako bidaia

Deserrotuak proiektuaren esparruan, urriaren amaieran, Zehar-Errefuxiatuekin elkarteko zenbait kide Kolonbiako Antioquia departamentura joan ziren hainbat kazetariarekin batera. Misioaren helburua indarkeriaren gogortzearen, erauzketa-proiektuen instalazioaren eta behartutako desplazamenduaren arteko harremana agerian uztea izan zen, adibide paradigmatico baten bidez: Hidroituango enpresa hidroelektrikoarena.

Bidaia hainbat erakunderekin batera antolatu zen: Paz Con Dignidad-OMAL, Corporación Jurídica Libertad, Red de Organizaciones Campesinas y Sociales del Norte y Bajo Cauca Antioqueño, Nodo Antioquia de la Coordinación Colombia-Europa-Estados Unidos eta Ríos Vivos mugimendua.

Ibilbide bat egin zuten Medellinetik Toledo, Ituango eta Valdivia udalerrietara eta Puerto Valdiviako korrejimendura. Bertan, honako kazetari hauek hartu zuten parte: Hibai Arbide eta Adriana Cardoso (Zungu Coop.); Arantxi Padilla eta Marcos Alonso (EiTB); María Ángeles Fernández (Pikara Magazine eta www.desplazados.org), Jairo Marcos (freelance fotokazetaria eta hedabide horren sortzaileetako bat), Maite Asensio (Berria), Gabriela Sánchez (www.eldiario.es) eta Silvia Corredor (El Espectador). Zazpi egunez, aipatutako guneko eta erakunde horietako hogeit hamar lider sozialekin baino gehiagorekin egon ziren, eta beren komunitateen egoeraren berri jaso zuten.

Bidaia probestuta, 24 albiste argitaratu ziren parte hartu zuten hedabideetan.



Marketina

Eroskiren Elkartasun Zentimoak

Eroskiren Elkartasun Zentimoak programaren eskutik, bi kanpaina egin ditugu urtarrilean eta otsailean.

‘Laguntza ekonomikoak’ kanpainak 240 pertsona baino gehiagori harrera eta laguntza egokia ematea bermatu zuen, arrisku-egoerak eta etxegabetasunak saihesteko eta, horrela, artatzen ditugun pertsonen kalean bizitzeak eragiten dien kalte pertsonala eta familiarra arintzen saiatu ginen. Lehentasuna eman zitzaizkien kalteberatasun handieneko egoeran zeuden pertsonen: guraso bakarreko familiak, etxerik gabeko pertsonak edo sare publikoak planteatutako gizarteratze-ibilbidetik kanpo geratzen diren guztiak.



Eroskiren Elkartasun Zentimoak programaren ekarpenarekin, Ukrainako gatazkatik ihesi iritsitako pertsonen harrera eta laguntza eman diegu ‘Ukrainarako laguntza’ kanpainaren bidez:

- 400 pertsona baino gehiagori eman genion zuzeneko arreta erakundearen jarduera integralaren esparruan, eta Eroskiren laguntza funtsezkoa izan da jarduera hori finantzatzeko.
- 45 ukrainar jaso ditugu Oñatiko Larraña Etxean.
- 6 ukrainar jaso ditugu Tolosako Zuloaga Txiki zentroan.



Iralabarriko San Antonio abesbatzaren ongintzako kontzertua

San Antonio abesbatzak, Bilbon eta Bizkaian errotuta dagoen abesbatza ezagunak, ukrainar errefuxiatuen aldeko bi kontzertu solidario antolatu zituen. Errepertorioa askotarikoa izan zen: pieza klasiko eta herrikoi ugarirekin eta estilo eta garai desberdinetako piezekin bertaratu zirenak gozarazi zituzten. Lehenengoa Iralako Frantziskotarren elizan izan zen eta bigarrena Jesusen Bihotzaren elizan.

Cafetería Zortzi

Bilboko Zortzi kafetegiko Julián bezalako kolaboratzaileak ere izan genituen. Ukrainako gerra piztu zenean, Julian Zehar-Errefuxiatuekin elkartarekin jarri zen harremanetan. Ukrainatik ihes egiten ari ziren pertsona desplazatu eta errefuxiatuak lagundu nahi zituen. Bere elkartasun kanpaina abiatu zuen, itsulapiko batekin eta bezeroen elkartasuna bideratzeko informazioa jasotzen zuen kartel batekin.

“Geldi zaitetz. Estresatuta zaudenean, dena azkarregi doanean, geldi zaitetz eta senti ezazu. Senti ezazu airea, ura, bizitza. Jendea sentitu behar duzu. Gaur egun, pertsona askok utzi diote sentitzeari eta sufritzen ari diren beste pertsonekin enpatia sentitzeari”. Julianen hitzak dira, Bilboko Zortzi kafetegiko jabea.

Julianek esan ziguna egin zuen. Gelditu egin zen, pertsonak sentitu zituen eta enpatia sentitu zuen. Eta, berak bezala, hamaika pertsona anonimok egin zuten. Horri ezker akonpainamendua egin ahal izan diegu egunero jazarpen mota desberdinengatik ihesean Euskadira bake bila iristen diren errefuxiatuei.



Banatutako jostailu hezigarrien artean, mahai-jokoak eta eskulanak, esperimentazio- eta eraikuntza-jolasak, imitazio-jostailuak, musikalak, panpinak, motorrak eta aire zabalean gozatzeko jostailuak zeuden.

Jostailu bat, ilusio bat

Crece Jugando fundazioaren eta RTVERen eskutik, 'Jostailu bat, ilusio bat' kanpainaren bidez eta Errefuxiatuen Nazioarteko Eguna baliatuz, 1.600 jostailu banatu genizkien Oñatiko eta Tolosako zentroetan eta beste harrera-guneetan hartutako familietako haurrei. Hori guztia egin genuen gaztetxoek artean jokoak integrazioarako, garapenerako eta gozamenerako duen balioa azpimarratzeko.

Fair Saturday

Beste urte batez 'Fair Saturday' jaialdiarekin egin genuen bat, kultura eta kausa sozialak erdigunean jartzen dituen proiektua. Iaz ekimen garrantzitsuenetako batean egon ginen, 'Metro Akustikoa' izenekoan. Zehar-Errefuxiatuekin elkarteari zuzendutako zuzeneko kontzertu asko antolatu ziren Metro Bilbaoko hainbat geltokitan.



Gray Heron

GRAY HERON

MRFIJODOR X ZEHAR-ERREFUXIATUEKIN



Gray Heron: The Good Immigrant lanak babes bila dabiltzan pertsonen errealitatea islatzen du koartza hauskararen migrazio-bidaiaren metaforatik abiatuta, zeinak mehatxuz jositako bidaia batean Zirkulu Polar Artikora migratzen duen.

Lan horrekin, Benzo Fijodor egileak eta Zehar-Errefuxiatuekinek elkarlana abiatu zuten artea eta aktibismoa maite duten pertsonentzako kapsula bilduma batekin, eta GRAY HERON (koartza hauskara ingelesez) lanaren izen bera erabili zuten. Lan horrek errefuxiatuek, migratzaileek eta aberrigabeek bizi behar dituzten egoera guztiak biltzen du hitzen eta irudien bidez: mugako kontrola, bisa, etxe berria, bizileku-baimena, pasaporte, kreditu-txartela, lana, alokairua, nazionalitate-eskaera...


Bildumak GRAY HERON obraren diseinuarekin egindako jantziak daude, kotoi organikoz eta birziklatutako materialez egindakoak, baita tote bag bat eta botila termiko zuri bat. Zeharren denda solidarioan eskuratu daitezke, www.zehar.eus webgunean.

KONTUAK ARGI

PKF ATTESTek urtero ikuskatzen ditu gure kontuak. Gure kontu-ikuskapenen inguruko informazio gehiago [HEMEN](#).


FINANTZATZAILEEN ARABERAKO DIRU-SARRERAK

Diru-sarrerak: 3.204.945 €.



GASTUEN ARABERAKO BANAKETA

Gastuak: 3.253.336 €.



SAREAN EGITEN DUGU LAN

- EAPN
- Gizardatz
- Harresiak Apurtuz
- Beste Bi plataforma
- Red-Familia
- Ecosistema
- Gasteizko Udaleko errefuxiatuen tokiko mahaia
- Euskal Autonomia Erkidegoko herritar etorkinen Integrazio eta Partaidetza Sozialerako Foroa
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Kontseilu Errektorea
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua.
- AUZO(LAN)KIDEAK BAKEAN/ MESA COLOMBIA
- Donostiako Udaleko Garapenerako Lankidetzeta eta Hezkuntzako Kontseilua
- Aniztasun Sarea.
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Gasteizko Udaleko Bizikidetzeta eta Aniztasun Elkargunea
- Eraberean - Tratu-berdintasunaren Aldeko eta Diskriminazioaren Aurkako Sarea. Berdintasunaren aldeko eta diskriminazioaren aurkako sarea
- Boluntariora-foroak (Bolunta, Gizalde, Batekin...)
- Sexu-esplotaziorako emakumeen eta nesken salerosketaren aurkako koordinazio Mahaia
- Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia
- Tipi-Tapa, Arabako gaztelania sarea
- ZAS- Zurrumurruen Aurkako Sarea
- bForoa
- Sareginez
- Europar Batasuneko aldi baterako birkokatzeko plataforma (EUTPR), Protect Defenders-en barnean
- Defensoras sarea
- Espainiako Estatuko babes-programen sarea
- Kolektiba Colombia
- Kolonbiarekiko elkartasun-plataformak eta -erakundeak koordinatzeko gunea
- Bizkaiko Foru Aldundiko aniztasunaren arloko elkarrizketarako eta partaidetzarako mahaia
- Somos Diversxs plataforma

ERAKUNDE ALIATUAK

FINANTZAZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



*Euskadira iristen diren errefuxiatuen
eskubideak eta garapen integrala defendatzen
eta sustatzen ditugu.*

(zehar)

errefuxiatuekin

Arreta Bulegoa:
Baiona Kalea 1-3, (Sarrera Urizar Plazatik)
48012, Bilbao
Tel: 944 059 566

Intzidentzia eta Kudeaketa Bulegoa:
Kristo Kalea 9 Bis, 5º
48007 Bilbao
Tel: 944 059 566

Intzidentzia eta Arreta Bulegoa:
Trenbide Kalea 8
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 880 533

Oñati
Larraña Etxea zentroa
943 009 049

Tolosa
Zuloaga Txiki zentroa
688 64 25 38

www.zehar.eus

info@zehar.eus

